



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

Mahastizaintza eta Enologia zerbitzua
Servicio de Viticultura y Enología

ARABAKO ERRIOXAKO MAHASTIEN ETA ARABAKO TXAKOLINAREN EGOERARI BURUZKO TXOSTENA, 2025-07-28koa

ARABAKO ERRIOXAKO KUADRILLA

Azken aste hauetan denbora beroa eta hezea nagusitu da, eta azken 50 urteetako ekainik beroena izan da, 2003koarekin batera. Bigarren asteko hego mendebaldeko aire beroak, eta hirugarren eta laugarren asteetako jatorri afrikarreko aireak ohikoa baino 6-8°C altuagoko anomalia termikoak eragin zituen, eta ekainean hainbat errekor erregistratu ziren; azkenean, batez besteko tenperatura ohikoa baino 3°C beroagoa izan zen. Eskualdeko prezipitazioei dagokienez, ekainean ohikoak izan direla esan daiteke: 59 litro bildu dira Paganosko estazioan, baina euria batez ere hilaren 2an, 11n eta 24an egin du. Uztailean, tenperatura altuen joerak jarraitu zuen; bero handiko egunak izan dira, eta hilaren 11n tanta hotzak eskualdearen erdigunean eragin zuen, batez ere. Haren ondorioek are gehiago kaltetu zuten lehendik ere zaila zen laborearen osasun egoera.

Izan ere, ekaitz hori "historikoa" izan zela esan daiteke: goi geruzetako depresio isolatu bat, aparatu elektriko handia eta haizete gogorrak ekarri zituen. Prezipitazio gogorrak ere utzi zituen Arabako Errioxako eskualdearen erdialdean; batez ere ura bota zuen, baina baita txingorra ere. Ekialdean eta mendebaldean ere prezipitazioak izan ziren, baina ez hain ugariak.

Euskalmetek alerta laranja ezarri zuen ostiralean, hilaren 11n, 10:00etatik 00:00etara, prezipitazio gogorren arriskuagatik eta txingorra botatzeko probabilitateagatik, eta bete egin zen. Euria 19:00ak inguruan sartu zen mendebaldetik, eta 80 litro baino gehiago utzi zituen lurraldeko eremu batzuetan; haietatik 50 litro ordubete baino tarte laburragoan bota zituen, 21:00ak inguruan, Arabako Errioxako eskualdearen erdialdean. Euria eta txingorra batera bota zituen, eta haize bortitza altxatu zen, 70 km/h-ko abiaduratik gorakoa. Horrek guztiak kalteak eragin zituen laboreetan eta azpiegituretan.

Txingorrak eragindako kalte nabarmenenak herri hauetako mahastietan gertatu ziren: Samaniego, Eskuernaga, Navaridas, Leza Eltziego, Mañuetako iparraldea,

Guardiako iparraldea eta Bilarko iparraldea; alegia, batez ere Toloño mendilerroaren oinean daudenetan. Baina eremu horietan ez ezik, kalteak jasan zituzten eskualdeko gainerakoek ere, batzuek handiagoak eta beste batzuek txikiagoak.

Laborearen egoera fenologiko orokorra ilar neurriko alea (K) zen, mordoak osatzen (L) hasita. Mahatsondo gehienak gorrinaren eraso orokorraren aurkako borroka bete-betean zeuden, behin eta berriz egindako tratamenduei esker, baina ekaitzak egoera larriagotu zuen. Mahasti garaietan, Toloño mendilerroaren oinetan zeudenetan, gorrin izurriteak eragin txikiagoa izan zuen, baina ekaitzak eta txingorrek eragindako kalteen ondorioz ekoizpena nabarmen murriztuko da.

Txingorrek mahatsondoen hostoak eta mahats mordoak kaltetu zituen. Hostoetan zartadurak edo zuloak eragin zituzten txingorrek eta haizeak, baina ez zen landare estalkian hosto galtze masiborik gertatu. Aitzitik, mahats mordoetan izan ziren kalte larrienak eta kezkarrienak. Agerien dauden mahats mordoetan, kasu askotan aurretik hostoak kendu zituztenez, aleak hondatu, kolpatu eta zartatu ziren, eta zauri horien ondorioz, oro har, errazago izaten da beste gaixotasun batzuek landareari eragitea, bereziki beste onddo oportunistak batzuek. Onddo horiek txingorrek eragindako zauriak baliatzen dituzte azkarrago hedatzeko (halako zauririk gabe motelago hedatuko lirateke, edo ez litzateke halakorik izango). Gorrina ere hedatzen hasi zen bigarren eraso batean, kasu horretan gorrin larbatu moduan.

Kalteak desberdinak izan ziren, mahatsondoaren osaeraren eta mahastiaren orientazioaren arabera; besorako sistemako mahastietan, txingorren norabidearen arabera, alde batak besteak baino kalte handiagoa jasan zuen, eta oso babestuta zeuden mahats mordo batzuk soilik geratu ziren kaltetu gabe, edo duten kokapenagatik parrak hesiarena eginda babestu zituenak. Landareari hostoak kentzeko lanak egin diren kasuetan, kalteak handiagoak izan dira, ez baitzegoen hostoen babesik. Aldakortasun hori dela eta, zaila da kalkulu orokor bat egitea; izan ere, mahats mordo batzuetan ale gutxi batzuk kaltetu dira eta beste batzuetan % 50 baino gehiago, zeinak bideraezinak baitira dagoeneko ardogintzarako, eta hondatutako landareetan, mahats mordo batzuen % 90 dago kaltetuta. Esan liteke 3.000 hektarea inguru daudela kaltetuta neurri handiagan edo txikiagan, baina aseguru etxeek tokian bertan aztertu ondoren, seguruenik gehiago izango dira.

Bestalde, prezipitazio bortitz eta ugarien ondorioz, lursail asko urak hartu zituen, eta, beraz, ezinezkoa izan da sendatzeko tratamenduak berehala egitea, eta, horren ondorioz, kalteak handiagoak izan dira. Lurra lehortu ahala, lursailak sartu ahal izan zen, bigarren infekzioa geldiarazteko tratamenduak egiten jarraitzeko. Infekzio hori ordurako nabaritzen ari zen, mildiu larbatu gisa. Lursail batzuetan tratamenduak berehala egin ahal izan zituzten, lurzoruaren tipologiagatik edo landare estalkiak ahalbidetzen zuelako, baina ez zen ohikoa izan. Ondoren, uztaileko hirugarren astean tenperatura altuak izan dira baina ez du euririk egin, eta laugarren astea eguzkitsua eta freskoa izan da. Hortaz, klimatologiari esker, gaixotasunak ez

ditu hedatzeko hain baldintza onak izan, baina kalteak handiak ziren ordurako kasu batzuetan.

Azkenik, eta aurreko guztia kontuan hartuta, oro har uzta txikia izango dela aurreikusi da, hein batean ikusita gorrinaren ondorio egiaztatuak larriagotu egin direla edo, kasu batzuetan, sortu ere egin dituela ekaitz gogor horrek.

AIARAKO KUADRILLA (ARABAKO TXAKOLINA)

Arabako Txakolina jatorri deituraren eskualdean, aurreko hilabeteak beroak izan ziren, eta prezipitazioak ohikoak. Uztaila, berriz, epela izan da, eta batez ere ipar haizea ibili da; horrek hegoaldetik zetozen tenperatura altuak jaitsarazi ditu. Prezipitazioak ohikoak izan dira, eta batez ere ekaineko azken astean eta uztaileko lehenengoan bota du euria. Mahats mordo gehienak osatuta (L) daude. Gorrinaren —endemikoa, zona hartan— eta zurinaren kontrola ondo egin da oro har, eta ohikoa izaten denez gero, normalean erabiltzen diren tratamenduak nahikoa izan dira kasu gehienetan.

Zorionez, uztailaren 11ko ekaitzak, litro gutxi batzuetako prezipitaziotik harago, ez zuen eragin kaltegarririk izan eskualdeko mahastietan.

Eremu horretan, mahastizainek hostoak kentzeko lanak egiten jarraitu dute, landareetan produktu fitosanitarioak hobeto sartzeko eta aireztapena hobetzeko, hori ona baita mahats mordoaren osasunerako, eta, horrez gain, kaleetako landarearen kontrola egin dute, ohi bezala.

Kanpaina honetarako, ekoizpen aurreikuspenak baikorrak dira, eta azken errendimendua mahats bilketara arteko hilabeteetako meteorologiaren araberakoa izango bada ere, egungo joera mantentzen bada, uzta ona izatea espero da.

Guardia, 2025eko uztailaren 28a.

MAHASTIZAINZA ETA ENOLOGIA ZERBITZUA
NEKAZARITZA SAILA